

Galdera

Etxe bati izena emateko, izena + etxea (adibidez: *Alazne etxea*) egokia litzateke?

Erantzuna

Alazneenea litzateke molderik ohikoena, gure iritzian.

1/ *-enea*

a/ Medikuarenean, Mikelenean eta horrelakoak esaten ditugu **medikuaren etxean/kontsultan, Mikelen etxean** eta abarren orde. NOREN kasuaren erabilera horretatik sortu zen **-enea** atzizkia etxeak izendatzeko (*-enea = etxea*):

Arotzenea, Txominenea, Ajuriaenea, Kristinaenea, Jakesenea eta beste.

Badira beste atzizki batzuk (**-rena, -koa, -tegi...**):

Tomasenea, Tomasena edo Tomaskoa; Andresenea, Andresena, Andreskoa, Andrestegi...

Amaierako *-a* artikulua galdu egiten dute lekuzko kasuetan:

Ajuriaeneko (*AjuriaeneAko), Ajuriaenetik (*AjuriaeneAtik); Tomasenetik (*TomaseneAtik), Tomasenekora (*TomasenekoAra)...

Zenbait lekutan, batez ere Nafarroan eta Iparraldean **-baita** atzizkia (edo aposizioa) (fr: *chez*) erabiltzen da *etxeren* sinonimotzat:

Aritzabaita, Elorriabaita, Pierrebaita, Bixentebaita, Gartziabaita...

Horiek guztiak gaur erabili nahi izanez gero, tokian tokiko tradizioari eman behar zaio lehentasuna, gure iritzian, eta euskalkiaren eta inguruko izenen usadioari jarraitu.

Izen bereziak diren aldetik, elkaturik idaztea da ohitura (Ajuriaenea, Kristinaenea...).

b/ Oikonimoaren (etxe-izena) oinarria izan daiteke **deitura bat** (*Lazkanorena, Erbitirena, Lapitzenea...*) (ez da ohikoa bi deituraren gainean eratzea etxearen izena), **izena** (*Balentiñena, Betrienea, Migeltxorena...*), **lanbidea** (*Sastrerena, Harginaenea, Zapatigiñenea...*) edo **goitizena** (*Mingotxenia, Jakaluxenea, Buruxurinea...*), eta, batzuetan, **izen-deiturak** (*Martinsanzena, Juanperitzenea, Juanlopezena...*).

2/ Gehiago jakiteko:

SALABERRI, Patxi (2006). "Nafarroako euskal oikonomiaz", ASJU, XL, 2006: 871-894.

<https://www.ehu.eus/ojs/index.php/ASJU/article/view/4438/4383>

* Zeinuak (izartxoak) adierazten du ondoren idatzita dagoena ez dela zuzena.